



**IRAKURRI  
ETA  
JAKIN**

**Irakurtzeko gogoia pizteko estrategiak**

**giltza**



IRAKURRI  
ETA  
JAKIN

Irakurtzeko  
gogoa  
pizteko  
estrategiak

### LIBURUA: Ezezagunak

#### ASKOTARIKO ADIMENAK

ESTRATEGIA								
1	x		x				x	x
2	x						x	x
3	x	x	x				x	x
4	x	x	x	x	x		x	x
5	x		x				x	x
6	x						x	x

### LIBURUA: Ezezagunak

#### OINARRIZKO GAITASUNAK

ESTRATEGIA											
	ENTZUTEA	HITZ EGITEA	IRAKURTzea	IDAZTEA	MATEMATIKARAKO KOMPETENTZIA	ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARAKO KOMPETENTZIAK	HITZIK GABE ETA MODU DIGITALEAN KOMUNIKATZEKO KOMPETENTZIA	ELKARBIZITZARAKO KOMPETENTZIA	ARTERAKO KOMPETENTZIA	IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KOMPETENTZIA	IZATEN IKASTEKO KOMPETENTZIA
1	x	x	x	x			x	x	x	x	x
2	x	x	x	x				x		x	x
3	x	x	x	x	x			x		x	x
4	x	x	x	x	x		x	x	x	x	x
5	x	x	x	x			x	x	x	x	x
6	x	x	x	x			x	x		x	x

## HELBURU OROKORRAK

- \* Irakurtzeko ohitura sustatzea.
- \* Mintzamina eta idazmina garatzea.
- \* Ikuspegi kritikoa izateko gaitasuna lantzea.
- \* Taldean lan egiteko behar diren jendarteko trebetasunak bultzatzea.
- \* Enpatia garatzea.
- \* Konturatzeko eta gogoeta egiteko gaitasun handiagoa garatzea.
- \* Ikasleak gero eta trebeagoak izatea informazioa bilatzen eta antolatzen.
- \* IKTetarako trebetasunak hobetzea.

IRAKURRI  
ETA  
JAKIN

## ORIENTABIDEAK

Irakurleak leku desberdinetan gertatzen diren bi istorio aurkituko ditu, baina, pixkanaka, gaua aurrera doala, gurutzatu egingo dira eta, azkenean, bat egingo dute.

Eleberriak intriga handia pizten du, eta harrapatu egiten du irakurlea, dinamikoa eta misteriotsua delako. Jakin-minez eta kezka airean irakurtzen da, poliziaren hipotesiek eragindako aldaketengatik. Horrekin batera, hitzordu itsu interesgarri bat, indarra hartuz doana protagonistek elkar ezagutu ahala.

Bi horientzat sare sozialak joko misteriotsu bat dira, baina arriskutsua izatera irits daiteke.

Amaiera ona du, ustekabekoa eta bidezkoa, eta gazteak sare sozialen arriskuez gogoeta egitera gonbidatzen ditu: ezezagunekin hitzordu itsurik ez egitea garrantzitsua da, arriskutsua izan daitekeelako, aurretik haiekin sare sozialen bidez komunikatzeko aukera izan badugu ere.

Proposatzen diren jarduera gehienak talde txikietan eta gero talde osoarekin egiteko pentsatuta daude. Horregatik, ezinbestekoa da ikasgelan giro ona sortzea, eta ikasleek konfiantza dagoela eta iritzi guztiak errespetatzen direla sentitzea.



Sakontasun-maila egokitu egin daiteke jarduera guztietan, taldearen eta irakaslearen interesaren arabera. Jarduerak ikaskuntza kooperatiboan eta pentsamendu-errutinetan oinarritu dira.

**Ikaskuntza kooperatiboa** ikasleen talde-lanean oinarritutako metodo bat da. Teknika horien bidez, ikasleek batera egiten dute lan helburu komunak lortzeko, taldekide guztiak arduradun direla.

**Pentsamendu-errutinak** ikasleek —bakarka nahiz taldean— erabiltzen dituzten egiturak dira, beren pentsamenduak abiarazteko, eztabaidatzeko eta kudeatzeko, eta, aldi berean, jokatzeko modu berriak aurkituz, burua erabili ahal izateko pentsamenduak sortzeko, hausnartzeko eta arrazoitzeko.

Eleberri hau irakurtzen denean honako gai hauek jorratzeko aukera sor daiteke:

- ♥ Sare sozialen arriskuak.
- ♥ Nerabezaroa.
- ♥ Maitasuna.

## JARDUERA 1:

(Irakurri aurretik): **«IKUSI, PENTSATU, GALDETU»**

### HELBURU OROKORRAK




- \* Liburua irakurtzeko gogoia piztea.
- \* Mintzamina eta idazmina lantzea.
- \* Ikuspegi kritikoa izateko eta hipotesiak formulatzeko gaitasuna sustatzea.

### JARDUERA

Pentsamendu-errutina honetan, irakasleak taldeari liburuaren azaleko argazkia erakutsiko die eta eskatuko die ondo aztertzeko eta, banaka, galderei erantzuteko:

- \* Zer da ikusten duzun hori?
- \* Zer pentsatzen duzu? (arrazoitu interpretatzen duzuna)
- \* Zer galdetzen diozu zeure buruari aztertzen ari zaren irudiaz?

Galderei erantzuteko, aurrez prestatutako fitxa bat banatuko diegu.

		
<b>IKUSI</b>	<b>PENTSATU</b>	<b>GALDETU</b>
Zer ikusten dut?	Zer esan nahi du, nire ustez?	Zer zalantza sortzen zaizkit?

## JARDUERA

Banakako lana amaitutakoan, talde handian partekatzen da. Komeni da ikasleak beren esaldien hasieran honako hauek erabiltzea: «Nik ikusten dut...», «Nik pentsatzen dut...», «Nire buruari galdetzen diot ea...».

## ORIENTABIDEAK

Partekatzean, beharrezkoa iritziz gero, irakasleak lagundu egingo die ikasleei beren pentsamenduak berriz planteatzen eta koherentziaz antolatzen.

## JARDUERA 2:

(Irakurri aurretik): «**HITZA, IDEIA, ESALDIA**»

### HELBURU OROKORRAK

- \* Irakurtzeko ohitura sustatzea.
- \* Ikuspegi kritikoa izateko gaitasuna lantzea.
- \* Mintzamina eta idazmina garatzea.

### JARDUERA

Kapituluen aurreko testutik abiatuz, ikasleei honako hauek egiteko eskatu:

- Irakurri testua bakarka. Gero, aukeratu deigarria iruditu zaien hitz bana, berentzat esanguratsua den ideia bana eta testua ulertzen lagundu dien esaldi bat. Ikasgelan eseki hiru kartoi mehe, bakoitza kolore batekoa, eta izenburu bat idatzi bakoitzean: «hitza», «ideia», «esaldia». Ikasleek papertxoetan idatziko dituzte aukeratutakoak eta kartoi meheetan itsatsiko dituzte. Horrela, beren pentsamendua ikusgai bihurtzeaz gain, egiaztatu egingo dute zenbat kontzeptu atera daitezkeen testutik.
- Taldean, kideekin partekatu hitza, ideiak eta esaldiak eta azaldu zergatik aukeratu diren.
- Hor jasotako guztia eta ikaskideen laguntza kontuan hartuz, erantzun:
  - \* Zertan etorri zarete bat?
  - \* Zer ondoriozta edo aurreikus daiteke testutik?
  - \* Zer alderdi ahaztu dira taldeko eztabaidan? Zergatik?
- Azkenik, orain zer ulertzen duten eta errutinak zer eman dien pentsatu.

### ORIENTABIDEAK

«Hitza, ideia, esaldia» errutinaren xedea testu jakin bateko ideia nagusiak harrapatzea eta esanahia hainbat ikuspegitatik bilatzea da.

Jarduera egiteko, irakasleak koloretako kartoi meheak beharko ditu.



## JARDUERA 3:

(Irakurri bitartean): «**3-2-1 ZUBIA**»

### HELBURU OROKORRAK

- \* Hasierako pentsamoldeez hausnartzea.
- \* Ikuspegi kritikoa izateko gaitasuna lantzea.
- \* Informazioa bilatzeko estrategiak garatzea.
- \* Sare sozialen arriskuez konturatzea.


### JARDUERA

Eleberrian sare sozialak eta balizko arriskuak aipatzen dira. Jarduera honetan, ikasleek gaiaren inguruan dituzten ideia, pentsamendu eta zalantzez hausnarketa egitea proposatzen da, eta gero, pentsamendu berriekin konektatzea.

Helburua aldez aurreko ideien eta informatu ondorengo ideien arteko «zubi» bat eraikitzea da.

Errutina honetan ikasleek «3, 2, 1» teknika baliatuko dute (3 pentsamendu, 2 galdera eta analogia 1). Lana banaka eta idatziz egingo dute, honako grafiko hau osatuz:

HASIERAKO ERANTZUNAK
<b>3 ideia</b>
<b>2 galdera</b>
<b>1 metafora</b>



## JARDUERA 3:

AMAIERAKO ERANTZUNAK		
3 ideia	2 galdera	1 metafora

ONDORIOAK

### JARDUERA

Lehenengo, ezkerreko aldean idatziko dituzte gaiari buruzko hasierako ideia, galdera eta metaforak.

Ikasleek, gaia lantzen hasteko, informazioa bilatuko dute. Horretarako artikuluren bat irakurriko dute, bideoen bat ikusi eta abar. Gero, beste «3,2,1» bat osatuko dute, beren azken burutazioekin.

Amaitzeko, beren ondorioak aterako dituzte, bi zutabeak alderatuz. Gero, taldean parteka daitezke hasierako ideiak eta berriak, ikaskideei azalduz nola eta zergatik aldatu diren beren ideiak.

### ORIENTABIDEAK

Garrantzitsua da informazio berriaren bidez ikasleek gauzei buruzko ikuskera berriak planteatzea.

Argi utzi behar da beti hasierako pentsamendua ez dela, ez okerra, ez zuzena, abiapuntua baizik. Bizipen berriek ondorio berrietara eramaten dute gure pentsamendua.

## JARDUERA 4:

(Irakurri bitartean): «**ANTZEZPENA**»

### HELBURU OROKORRAK

- \* Taldean lan egiteko behar diren trebetasun sozialak sustatzea.
- \* Mintzamina eta idazmina garatzea.
- \* Estetika eta artea gustuko izatea bultzatzea.
- \* Antzerki-teknikak aplikatzea.

### JARDUERA

Jarduera honetarako, klasea 4-5 ikasleko taldetan banatzen da, errazagoa izan dadin antolatzea eta lan egiteko erak ezartzea.

- Talde bakoitzari eskatuko zaio antzezpene txiki bat prestatzeko, musika eta guzti, Gerarden obra kutunean ageri diren eszenei buruz. Liburua *Printze txikia* da, Antoine Saint-Exupéry frantziar idazlearena. Horretarako askotariko materialak erabiliko dituzte: liburua, argazkiak, bideoak, filmak...
- Antzezpene prestatu ondoren, ikaskideen aurrean antzeztuko dute. Ez da komeni 10 minututik gorakoa izatea.
- Obra bakoitza bukatutakoan, ikaskideek ebaluatu egingo dute, honako alderdi hauei erreparatuz:
  - \* Antzezpene zuzena da.
  - \* Aktoreek ondo adierazi dituzte beren emozioak.
  - \* Adierazteko modu argia izan dute antzezleek.
  - \* Taldekide guztiak parte hartu dute.
  - \* Dekoratu eta jantzien ikusgarritasuna, kalitatea....
  - \* Balorazio orokorra.

Horretarako, talde bakoitzari ebaluazio-fitxa bat emango zaio, aztertu beharreko item guztiekin. 1etik 5era puntuatuko dira, 1 puntuazio txikiena eta 5 handiena izanik.

<b>TALDEA</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
1. Antzezpena zuzena izan da.					
2. Antzezleek ondo adierazi dituzte beren emozioak.					
3. Adierazteko modu argia izan dute.					
4. Taldekide guztiek parte hartu dute.					
5. Dekoratuena eta jantziaren ikusgarritasuna, kalitatea eta abar.					
6. Balorazio orokorra.					

Irakasleak balorazioak jasoko ditu, eta amaierako ebaluazioaren parte gisa erabili ahal izango ditu.

## ORIENTABIDEAK

Kontuan izan, antzezpena laburra izan arren, prestatzeko denbora behar dela. Beste arlo batzuetako irakasleek kolaboratzea ere interesgarria izan daiteke; esate baterako musikakoak, plastikakoak, gorputz-hezkuntzakoak...

Irakasleak beste itemen bat gehitu ahal izango du, fitxa bera baloratzeko.

## JARDUERA 5:

(Irakurri ondoren): «**BIDEOKLIPA**»

### HELBURU OROKORRAK

- \* Mintzamina eta argudiatzeko gaitasuna sustatzea.
- \* Sare sozialetan aurki daitezkeen balizko arriskuez hausnartzea.
- \* Ikuspegi kritikoa lantzea.

### JARDUERA

Jarduera honen bidez, aldez aurreko ezagutzak aktibatzea proposatzen da, ideiak sortzen laguntzea eta ideiak lotzea, sare sozialak gaitzat hartuta.

- Irakasleak sare sozialen arriskuei buruzko istorio hau ikustea proposatuko du:  
<https://www.youtube.com/watch?v=Ak3qp4qRAiY>
- Gero, honako hauek eskatu ikasleei:
  - \* Istorioa ikusitakoan burura datozkien ideien zerrenda **sortu**.
  - \* Talde handian, ideia horiek **sailkatu** eta horma-irudi batean kokatu: erditik hurbilago edo urrunago, garrantziaren arabera.
  - \* Zerikusia duten ideiak lerro bidez **lotu**.
  - \* Ahaztutako edo kontuan izan gabeko ideiak gehitu eta sortutako ideia guztien mapa **osatu**.

### ORIENTABIDEAK

Irakasleak prest eduki beharko du kontzeptu mapa egiteko behar den material guztia.

Mapa bukatutakoan, irakasleak egoki iritziz gero, elkarrizketa labur bat egin, laburpen gisa.

## JARDUERA 6:

(Irakurri ondoren): «**GALDERA SORTZAILEAK - ZER JAKIN NAHI DUT ZURI BURUZ?»**»

### HELBURU OROKORRAK

- \* Ideiak laburbiltzeko gaitasuna garatzea.
- \* Hausnarketa egiteko eta besteei entzuteko gaitasuna sustatzea.
- \* Enpatia bultzatzea.
- \* Mintzamina trebatzea.
- \* Giza harremanak jorratzea.

### JARDUERA

Liburua amaitutakoan, ikasleei eskatu —Gerardek eta Larak bezala— galdetegi bat prestatzeko, elkar ezagutzen laguntzeko modukoa.

Helburua bestea (ikaskide bat) sakonago ezagutzea da, ondo landutako galdera sorta bat erabiliz etaazaleko kontuetan erortzea saihestuz.

- Ikasleei proposatu besteari buruz dakitenean oinarrituz idazteko bururatzen zaizkien galdera guztiak. Zaila bazaie edo galdera sinpleak ateratzen badira, eredu batzuk erakutsi, gehixeago landu ditzaten. Esate baterako:
  - \* Zer gertatuko litzateke, baldin eta...?
  - \* Zer arrazoi dela eta...?
  - \* Imajina ezazu...
  - \* Demagun...
  - \* Zer gertatuko litzateke ..... ezagutzeko aukera bazenu?
  - \* Zer izango litzateke desberdina, baldin eta...?
  - \* Nola jokatuko zenuke, baldin eta...?
  - \* Etab.
- Jarraian, sortutako galderak komentatuko dira talde handian. Ikasleek lagunduta, galderarik interesgarrienak eta egokienak nabarmenduko ditugu eta honelako horma-irudi bat egin dezakegu:



## JARDUERA 6:

GALDERA SORTZAILEAK	GALDERA SORTZAILE INTERESGARRIAK

- Ikasleei eskatu binaka aukeratzeko, 5 edo 6 galdera, ikaskideari galdetzeko.
- Elkarrizketak amaitutakoan, autoebaluaziotzat balio dezakeen galdera bat planteatu geniezaieke ikasleei:

\* Lehenago ez zenekien zer alderdi edo arlo berri jakin duzu zure ikaskideari buruz?

### ORIENTABIDEAK

- Errutinari ekin aurretik, galdera onen ereduak lantzea komeni da.
- Errutina lehen aldiz egiten denean, komeni da galderak talde txikitan (3 edo 4 lagunekoak) sortzea.
- Garrantzitsua da galderak aztertzea, egokiak direla eta inor mintzekoak ez direla ziurtatzeko.
- Taldearen arabera, galdera-erantzunen batzuk ikaskideen aurrean egiteko eska dakieke.